1. Aurrekontuan aurreikusitako zuzeneko diru-laguntza izendunetarako espedientean, txosten tekniko bat sartuko da, non bertan justifikatuko den prozeduraren egokitasuna lehiakortasun gabeko salbuespena izateko, eta diru-laguntzako xedeko proiektua, aurrekontuarekin batera, onuradunaren identifikazioa, aldeek sinatu beharreko lankidetza hitzarmena eta indarrean dagoen legeriak eska ditzakeen gainerako dokumentuak.

*28. artikulua. Prozedura.*

Zuzenean eta salbuespen gisa diru laguntzak emateko honako prozedura jarraituko da:

1. Zuzeneko diru laguntza bereziak emateko espedientean sartuko da udal sail edo azpi-sailaren Zinegotzi/Arduradunak sinatutako memoria. Bertan justifikatuko da diru laguntzen izaera berezia, interes publikoa, soziala, ekonomikoa eta humanitarioa egiaztatzeko arrazoiak zein diren eta deialdi publikoa egitea eragozten duten bestelakoak.

2. Diru-laguntzen emakida izendunek zein gainerako zuzeneko emakiden akordioak baldintza hauek bete beharko dituzte gutxienez:

a) Laguntzaren edo diru laguntzaren xedearen deskribapen zehatza.

b) Gastua aurrekontuko zein partidarekin ordainduko den.

c) Diru laguntza kudeatzeko organo arduraduna.

d) Laguntzaren zenbatekoa. Gehieneko zenbatekoa kontzeptuka xehatuta emango da.

e) Diru laguntza prestatzeko itun edo hitzarmen bat sinatzea aurreikusi eta baimentzea, edo hala badagokio emakida baliogabetzea.

f) Aipatu behar da diru laguntzen emakidarako kontuan hartutako baldintzak aldatzeak, eta nolanahi ere, beste adminis-

donde se fijarán y determinarán los ámbitos de colaboración específicos, las actuaciones concretas a desarrollar, los derechos y obligaciones de los suscribientes, así como la forma de justificación.

TÍTULO VI

DEL RÉGIMEN Y PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN DIRECTA Y EXCEPCIONAL DEL RESTO DE SUBVENCIONES

*Artículo 27. Subvenciones directas.*

1. Las subvenciones podrán concederse directamente, siempre y cuando cumplan la normativa de igualdad, no siendo preceptivas ni la concurrencia competitiva ni la publicidad, en los siguientes casos:

a) Aquellas cuyo otorgamiento o cuantía venga impuesta a la administración por una norma legal.

b) Cuando las adjudicaciones sean nominativas en los Presupuestos Generales iniciales del Ayuntamiento o en las modificaciones de crédito aprobadas en el Pleno.

c) Subvenciones para remediar situaciones de emergencia o de urgencia cuando estas sean incompatibles con el trámite de publicidad.

d) Aquellas otras subvenciones en las cuales se acrediten razones de interés público, social, económico o humanitario, y otras debidamente justificadas que dificulten su convocatoria pública.

e) Cuando debido a las características de la persona beneficiaria, o al objeto o naturaleza de la subvención no proceda la concesión en régimen de concurrencia competitiva. Las subvenciones directas deberán estar reguladas por unas bases propias que establezcan los requisitos que deben reunir las personas o entidades beneficiarias para la obtención de las subvenciones.

1. En el expediente para las subvenciones directas previstas nominativamente en el presupuesto, se incluirá un informe técnico donde se justifique la oportunidad del procedimiento como excepción a la concurrencia competitiva, el proyecto objeto de subvención, con su correspondiente presupuesto, la identificación de la persona beneficiaria, el convenio de colaboración a suscribir por las partes, y la restante documentación exigible por la legislación vigente.

*Artículo 28. Procedimiento.*

La concesión directa y excepcional de las subvenciones se realizará de acuerdo al siguiente procedimiento:

1. En el expediente para la concesión de las subvenciones directas, se incluirá una memoria suscrita por el concejal o la concejala responsable del área o subárea municipal, justificativa del carácter singular de las subvenciones y de las razones que acreditan el interés público, social, económico y humanitario y otras que justifiquen la dificultad de la realización de una convocatoria pública.

2. El acuerdo de concesión de la subvención directa deberá cumplir, como mínimo, con los siguientes requisitos:

a) Definición precisa del objeto de ayuda o subvención.

b) Aplicación presupuestaria a la que se imputa el gasto.

c) Órgano encargado de la gestión de la subvención.

d) Cuantía de la subvención, incluyendo, su importe máximo desglosado en conceptos.

e) Previsión y autorización en su caso, de la suscripción de un concierto o convenio que instrumente la subvención, o en su caso, la resolución de concesión.

f) Mención de que la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, y en todo caso la


EK\CV GAO-I-2022-05727

trazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako laguntzak edo diru laguntzak, eta hala badagokio, xede bereko edozein diru-sarrera edo baliabide aldi berean lortzeak emakida ebazpena aldatzea ekarri ahalko duela, betiere laguntzaren onuradun izateko ezarritako gutxieneko baldintzak babestuz. Horren haritik, beste laguntza, diru laguntza edo baliabide batzuk aldi berean gertatzeko aukera, edo hala badagokio, hori jasotzeko bateraezintasuna aipatu egin beharko da, modu horretan behar baino gehiagoko finantzazioa saihesteko.

g) Ordaintzeko epea eta modua.

h) Onuradunak laguntza edo diru laguntzaren xedea betetzea eta jasotako fondoen aplikazioa justifikatzeko epeak eta modua.

i) Berme araubidea, bidezkoa denean.

j) Onuradunaren betebehar zehatzak aipatzea, hala badagokio. Nolanahi ere, ez dira baztertutako Diru laguntzen legearen 14. artikuluan modu orokorrean jasotakoak.

k) Diru laguntza itzultzea ezin exijitu daitekeen kasu zehatzak. Nolanahi ere, ez dira baztertuko Diru laguntzen Legearen 37. artikuluan modu orokorrean jasotakoak.

3. Dagokion hitzarmenean edo hala badagokio, emakidaren ebazpenean, onuradunaz eta diru laguntzaren zenbatekoaz gain, helburua, epea eta justifikazioaren forma finkatuko dira.

VII. TITULUA

DIRU LAGUNTZEN ORDAINKETA

*29. artikulua. Aurrekontua kudeatzeko prozedura.*

Diru laguntzaren deialdiaren edo horren zuzeneko emakidaren aurretik, gastuaren onarpena egin beharko da, aplikatzekoa den aurrekontu-arauetan ezarritako baldintzekin.

Diru laguntzaren emakidaren ebazpenak dagokion gastuaren konpromisoa ekarriko du berekin.

Ordainketaren betebeharra eta ordenamendua aintzat ematea dagokion organoaren erabaki bidez egingo da, aurrekontua gauzatzeko arauetan ezarritakoari jarraiki.

*30. artikulua. Abonua eta ordainketa aurreratuak.*

Diru laguntzaren abonua diru laguntza hori lortzeko adierazi zen xedea bete dela aurrez justifikatuta egingo da.

Aurrekoa horrela izanda ere, diruz lagundutako ekintzarengatik justifikatzen bada, konturako abonuak egin ahal izango dira. Konturako abonu horiek ordainketa zatikatuen bidez egin ahal izango dira, diruz lagundutako ekintzak gauzatzen diren erritmoaren arabera, eta aurkeztutako justifikazioaren zenbateko baliokide bidez abonatuko dira.

Ordainketa aurreratuak egin ahal izango dira justifikazioaren aurretiko fondo-entrega moduan, diru laguntzei atxikitako jarduerak burutzeko nahitaezko finantzaketa gisa, oinarri berezietan, edo hitzarmenetan, edo akordioetan horrela erabakitzen bada diru laguntza izendunen edo zuzenekoen kasuan.

Diru laguntzaren ordainketa ezin izango da egin pertsona edo erakunde onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean ez dituen artean edo itzulerabidezkotasuneko ebazpenez zordun den artean.

Diru laguntza bakoitzaren oinarrietan jaso ahal izango da ordainketa «endosu» bidez, hau da, kobrantza-eskubidearen lagapenaren bidez, egin ahal izango dela. Oinarriek arautuko dute

obtención concurrente de ayudas o subvenciones otorgadas por otras administraciones o entes públicos o privados, y en su caso, de cualesquiera otros ingresos o recursos para la misma finalidad, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión, siempre que se salvaguarden los requisitos mínimos establecidos para ser beneficiaria o beneficiario de la ayuda. En este sentido, deberá mencionarse la posibilidad de concurrencia con otras ayudas, subvenciones o recursos, o en su caso, la incompatibilidad, y deberán establecerse necesariamente los límites o criterios para evitar la sobrefinanciación.

g) Plazos y forma de pago.

h) Plazos y forma de justificación por parte de la persona beneficiaria del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la ayuda o subvención y de la aplicación de los fondos percibidos.

i) Régimen de garantías cuando proceda.

j) Mención, en su caso, de las obligaciones concretas de la persona beneficiaria, sin perjuicio de las recogidas con carácter general en el artículo 14 de la Ley de Subvenciones.

k) Los supuestos específicos en los que no sería exigible el abono de la subvención o procedería el reintegro, sin perjuicio de los supuestos generales previstos en el artículo 37 de la Ley General de Subvenciones.

3. En el correspondiente convenio o, en su caso, en la resolución de concesión, se fijarán, además de la persona beneficiaria y cuantía de la subvención, el objeto, el plazo y la forma de justificación.

TÍTULO VII

DEL ABONO DE LAS SUBVENCIONES

*Artículo 29. Procedimiento de gestión presupuestaria.*

Con carácter previo a la convocatoria de la subvención o a la concesión directa de la misma, deberá efectuarse la aprobación del gasto en los términos previstos en la normativa presupuestaria aplicable.

La resolución de concesión de la subvención conllevará el compromiso del gasto correspondiente.

El reconocimiento de la obligación y ordenación del pago, se efectuará mediante resolución del órgano correspondiente, según lo establecido en las normas de ejecución presupuestaria.

*Artículo 30. Abono y pagos anticipados.*

El abono de la subvención se realizará previa justificación del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió.

No obstante lo anterior, cuando se justifique por razón de la acción subvencionada, podrán realizarse abonos a cuenta. Dichos abonos a cuenta podrán consistir en pagos fraccionados, que responderán al ritmo de ejecución de las acciones subvencionadas, abonándose por cuantía equivalente a la justificación presentada.

Se podrán realizar pagos anticipados que supondrán entregas de fondos con carácter previo a la justificación, como financiación necesaria para poder llevar a cabo las actuaciones inherentes a la subvención, determinándose este hecho en las bases específicas, en los convenios o en los acuerdos, en el caso de las subvenciones nominativas o directas.

No podrá realizarse el pago de la subvención en tanto la entidad o persona beneficiaria no se halle al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social o sea deudor o deudora por resolución de procedencia de reintegro.

Las bases de cada subvención podrán contemplar la posibilidad de efectuar el pago mediante endoso, es decir, mediante cesión de derecho de cobro. Las bases regularán de qué forma

EK\CV GAO-I-2022-05727

laguntza eskatzaileak zein modutan baimenduko duen Udala ordainketa beste erakunde bati eginez gauzatzea. Betiere, laguntza eman ondoren egindakoa izan beharko du eta, ondoriorik izateko, Udala jakinaren gainean jarriko da. Ordainketa mota hau diru laguntza eskatu den helburuarako erabiliko dela bermatzeko helburua du. Lagapenaren ondorioz egindako ordainketak udalaren betebeharra, kopuru horri dagokionez, amaitutzat ematea ekarriko du. Ez da onartuko bigarren edo segidako «endosu» edo kobrantza-eskubidearen lagapenik.

VIII. TITULUA

UDALAREN DIRU LAGUNTZAK JUSTIFIKATZEA

*31. artikulua. Diru laguntzen justifikazioa. Ezaugarri orokorrak.*

Diru la guntza emateko egintzan ezarritako baldintzak bete eta aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko edo frogatzeko, ordenantza honek aurreikusitakoari jarraitu behar zaio, hala balitz kasua, diru laguntzaren araudi erregulatzailean ezar daitezkeen berezitasunekin eta zehaztapenekin.

Justifikazioa diru laguntza eman duen organoari aurkeztuko zaio. Diru laguntzak justifikatzeko modua justifikazio-kontua izango da. Justifikazio kontuak egindako gastu eta inbertsioen zerrenda zehatza eta fakturen eta ordainketa ziurtagirien kopiak bilduko ditu. Gainera, diru laguntzaren araudi erregulatzailean, besteak beste, honako agiriak eskatu ahal izango dira:

— Justifikazio-memoria. Memorian sexuaren arabera banakatutako informazioa aurkeztu beharko dute emandako zerbitzuaren azken onuradun edo erabiltzaileei buruz, erakundearen titularrei eta plantillari buruz eta, hala badagokio, diru-laguntzaren xede den zerbitzua emateko kontratatu den erakundearen plantillari buruz.

— Emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak benetan betetzen direla frogatzea, horiek egiaztatzeko agiriak aurkeztu eta justifikatzea, eta irizpide sozial horiek egiaztatzeko jarduketen mende jartzea.

— Diru-sarreren eta gastuen balantzea.

— Helburu berberarekin beste erakunde batzuei eskatutako finantzazio iturrien edo eskatutako diru laguntzen zerrenda (emandakoak, ebazteko daudenak, eta abar). Aurkeztu ezean, eskatu ez direla ulertuko da.

— Egindako publizitatearen ale bat.

Diru laguntzak hartzailearen egoera jakin bat aintzat hartuta ematen direnean (Gizarte-izaerako xedeak asetzen dituzten premiazko beharrei arreta jartzeko laguntzak, adibidez), diru laguntza eman aurretik hartzailea egoera horretan aurkitzen dela frogatu beharko da, besterik gabe, zuzenbidean onargarria den edozein frogabide erabiliz, eta ez da bestelako justifikaziorik eskatuko; hala ere, egoera hori egiaztatzeko kontrolak ezar daitezke.

Organo emaileak, diru laguntzaren aplikazio egokiari buruzko arrazoizko ebidentzia lortzeko aukera ematen duten frogagiriak egiaztatuko ditu, eta helburu horretarako hautatutako gastu-frogagiriak igortzeko eskatu ahal izango dio onuradunari.

Hartutako fondoen aplikazioaren justifikazioa, oro har, horrela egingo da:

— Diru laguntzaren xedea obra edo instalazio bat egitea bada, justifikazio-dokumentuak teknikari eskudun baten ziurtagiriak izango dira. Udalak, egindako obra edo instalazioen berri emango duen udal teknikari bat izendatu ahal izango du.

autorizará la persona solicitante al Ayuntamiento la realización del pago a otra entidad. En cualquier caso, deberá ser posterior a la concesión de la ayuda y, para que surta los efectos oportunos, deberá ponerse en conocimiento del Ayuntamiento. Este tipo de pago tiene por objeto garantizar que la subvención va a ser utilizada para la finalidad para la que ha sido solicitada. El pago efectuado mediante cesión conllevará, en lo que respecta a ese importe, dar por finalizada la obligación del Ayuntamiento. No se admitirán segundos y sucesivos endosos o cesiones de derecho de cobro.

TÍTULO VIII

DE LA JUSTIFICACIÓN DE LAS SUBVENCIONES MUNICIPALES

*Artículo 31. Justificación de las subvenciones. Características generales.*

La justificación del cumplimiento de las condiciones impuestas y de la consecución de los objetivos previstos en el acto de concesión de la subvención se realizará en los términos previstos en la presente ordenanza, con las particularidades y especificaciones que, en su caso, se establezcan en la normativa reguladora de la subvención.

La justificación se realizará ante el órgano concedente. La modalidad de justificación de las subvenciones será la cuenta justificativa. La cuenta justificativa contendrá una relación detallada de los gastos e inversiones y las copias de las facturas y de los certificados de pago de la actividad. Además, en la normativa reguladora de las subvenciones, entre otras, podrán solicitarse los siguientes documentos:

— Memoria justificativa. Se deberá aportar información desglosada por sexo de las personas beneficiarias o usuarias finales del servicio prestado y de las personas titulares de la entidad y de su plantilla, así como de la plantilla de la entidad que se haya contratado, en su caso, para la prestación del servicio objeto de la subvención.

— Se deberá acreditar el cumplimiento efectivo de las cláusulas para la igualdad de mujeres y hombres, así como aportar y justificar la documentación establecida para su verificación.

— Balance de ingresos y gastos.

— Relación de las fuentes de financiación y/o subvenciones solicitadas (concedidas, pendientes de resolución, ...) a otros organismos para la misma finalidad. En caso de que no se comuniquen, se entenderá que no se han solicitado.

— Un ejemplar de la publicidad realizada.

Las subvenciones que se concedan en atención a la concurrencia de una determinada situación en la persona perceptora (por ejemplo, las ayudas que satisfacen objetivos de carácter social destinadas a atender necesidades básicas) no requerirán otra justificación que la acreditación por cualquier medio admisible en derecho de dicha situación previamente a la concesión, sin perjuicio de los controles que pudieran establecerse para verificar su existencia.

El órgano concedente podrá requerir a la persona beneficiaria una muestra de los justificantes de gasto que permita obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención.

La justificación de la aplicación de los fondos recibidos se realizará, con carácter general, del siguiente modo:

— Si el destino de la subvención es la realización de una obra o instalación, los documentos justificativos serán certificaciones de un técnico o técnica competente. El Ayuntamiento podrá designar que un técnico o una técnica municipal informe sobre las obras o instalaciones realizadas.

EK\CV GAO-I-2022-05727

— Xedea material suntsigarria erostea, zerbitzuak ematea edo antzeko beste batzuk badira, jatorrizko justifikazio-dokumentuak edo fotokopia konpultsatuak ekartzea eskatuko da.

*32. artikulua. Justifikazio-epea.*

Justifikazioa eta kontu-ematearen epea diru laguntza publikoei dagozkien oinarri bereziek edo hitzarmenek zehaztuko dituzte. Epe hori, gehienez ere, ezingo da inoiz hiru hilabetetik gorakoa izan, jarduera egiteko epea amaitu eta hortik aurrera zenbatuta.

Nahi duten pertsonek edo elkarteek jarduera justifikatzeko epearen luzapen bat eskatu ahal izango dute, betiere programa aurten hasia bada eta oinarri berezietan ezarritako epean amaitua ez bada; kasu horretan, justifikazioak aurkezteko epea jarduera amaitzen den hurrengo hilabetean bukatuko da.

*33. artikulua. Diru laguntzak egiaztatzea.*

Udalak egokitzat jotzen dituen bideen bitartez egiaztatu ahal izango du emandako kantitateak adierazi ziren xedeetan inbertitu direla. Ez betetzekotan, jasotako kantitateak eta dagozkien atzerapen-interesak itzultzeari ekingo dio, eta beste erantzukizun posible batzuk ere eskatuko dizkio.

Udalak, nolanahi ere, berariaz egiaztatuko du diru-laguntzen lerro bakoitzean jasotako emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak benetan betetzen diren, eta, horretarako, egokitzat jotzen dituen egiaztapenak eskatu eta egin ahal izango ditu. Horretarako egindako jarduerak artikulu honetan aipatzen den txostenean jaso beharko dira.

Frogagiriak justifikatzeko espedientea diru laguntza eman duen organo emaileak egingo du.

Organo emaileak diru laguntzaren justifikazio egokia, diru laguntzaren emakida edo gozamena eragin duen jarduera egin izana eta xedea bete izana egiaztatuko ditu, eta horretarako udal-sailak dagokion txostena igorriko du.

*34. artikulua. Diru laguntzak egiaztatzeko jarduera-plana.*

Diru laguntza ematen duen organoak urteko jarduera-plan bat egiteko betebeharra izango du urtero, onuradunek diruz lagundutako jarduerak gauzatu dituzten egiaztatzeko.

Plan horrek adierazi beharko du egiaztatzeko betebeharrak diru laguntza guztiak ala emandakoen lagin bat hartzen dituen, eta azken kasu horretan, horiek hautatzeko modua ere bai. Egiaztatu beharreko alderdiak eta egiteko unea ere jaso beharko ditu.

IX. TITULUA

DIRU LAGUNTZAK ITZULTZEA

*35. artikulua. Itzultzea.*

Jasotako kantitateak itzultzea eta dagokien atzerapen-interesa eskatzea bidezkoa izango da, diru laguntza ordaintzeko unetik itzultzearen bidezkotasuna adosten den data arte, Diru laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak (37. artikuluan) eta haren garapenerako erregelamenduak aurreikusitako inguruabarren bat gertatzen denean, bai eta oinarri berezietan jasotako kasuetan ere.

Kudeaketa, ikuskapen edo kontrol funtzioetan jasotako diru laguntzaren lorpen, gozamen edo xede desegokien zantzuak ondorioztatzen direnean, espedientean jasoko dira zantzu horiek eta kautela-neurri zehatzak adostu ahal izango dira.

— Si el destino es la adquisición de material fungible, la prestación de servicios y otros de naturaleza semejante, se requerirá la aportación de documentos justificativos originales o fotocopias compulsadas.

*Artículo 32. Plazo de justificación.*

El plazo de justificación y dación de cuentas será el establecido en las bases específicas o convenios de las ayudas públicas. Con carácter general el plazo de justificación no excederá de tres meses desde la finalización del plazo para la realización de la actividad.

Las personas o entidades beneficiarias podrán solicitar una prórroga del plazo de justificación de la actividad, siempre y cuando el programa haya comenzado el año en curso y el plazo establecido en las bases específicas no haya finalizado; en tal caso, el plazo para presentar las correspondientes justificaciones finalizará el mes siguiente a la finalización de la actividad.

*Artículo 33. Comprobación de las subvenciones.*

El Ayuntamiento podrá comprobar, por los medios que considere oportunos, que las cantidades otorgadas se han invertido en la finalidad para la que se concedieron. En caso de incumplimiento procederá al reintegro de las cantidades percibidas y los intereses de demora que correspondan, así como la exigencia de otras posibles responsabilidades.

El Ayuntamiento en todo caso comprobará de forma específica el cumplimiento efectivo de las cláusulas para la igualdad de mujeres y hombres contenidas en cada línea de subvención, y a tal efecto, podrá requerir y realizar las comprobaciones que estime oportunas. Las actuaciones realizadas al efecto deberán ser recogidas en el informe al que se refiere el presente artículo.

El expediente para la justificación de los justificantes será realizado por el órgano concedente de la subvención.

El órgano concedente comprobará la adecuada justificación de la subvención, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención, a cuyo efecto el departamento municipal emitirá el correspondiente informe.

*Artículo 34. Plan de actuación para la comprobación de las subvenciones.*

El órgano concedente de la subvención tendrá la obligación de elaborar anualmente un plan anual de actuación para comprobar la realización por las personas beneficiarias de las actividades subvencionadas.

El citado plan indicará si la obligación de comprobación alcanza a la totalidad de las subvenciones o bien a una muestra de las concedidas y, en este último caso, su forma de selección. También deberá contener los principales aspectos a comprobar y el momento de su realización.

TÍTULO IX

REINTEGRO DE LAS SUBVENCIONES

*Artículo 35. Reintegro.*

Procederá al reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro cuando concurra alguna de las circunstancias previstas en el art. 37 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y su Reglamento de desarrollo, así como en los supuestos contemplados en las bases específicas.

Cuando en el ejercicio de las funciones de gestión, inspección o control se deduzcan indicios de incorrecta obtención, disfrute o destino de la subvención percibida, se dejará constancia en el expediente de tales indicios y se podrán acordar las medidas cautelares precisas.

EK\CV GAO-I-2022-05727

1. Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko dira. Aurrekontuen Lege Orokorrean aurreikusitakoa aplikatuko da kobrantzarako.

2. Diru-laguntzen arloan aplikatu beharreko berandutze-interesa ehuneko 25 gehituta, salbu eta Nafarroako Aurrekontu Orokorren Legeak Estatuak beste bat ezartzen badu.

3. Interesik ez ezartzeko argudioak adierazi beharko dira itzulketa akordioan.

*36. artikulua. Itzultzeko prozedura.*

Diru laguntza eman duen organoa jasotako zenbatekoaren itzulketa osoa edo partziala exijitzeko ebazpena hartzeko eskuduna izango da. Administrazioak itzulketa onartzeko edo kitatzeko duen eskubidea lau urteren buruan indargabetuko da.

Diru laguntzak itzultzeko prozedura ofizioz hasiko da, diru laguntza eman duen organoak eskatuta, maila handiagoko batek eskatuta, eskaera arrazoitu bidez beste organo baten eskariz, edo arlo horretako finantza-kontrola egiteko eskumena duen organo batek eskatuta, partikularrak berak egindako salaketaz edo komunikazioz.

Prozeduraren izapidean interesatuaren entzunaldi-eskubidea bermatuko da betiere.

Emandako diru laguntzaren aplikazio ezegoki osoa edo partziala egiaztatutakoan, organo eskudunak ebazpen arrazoitua egingo du, itzuli beharra sortu duten kausa edo kausak espresuki adierazita, hala nola itzuli beharreko zenbatekoaren kuantifikazioa, itzultzeko modua eta epea, eta itzulketa aurreikusitako epean egin ezean, premiamendu bidez ekingo zaiola ohartaraziz.

Aurreko atalean deskribatutako itzultze-ebazpena jakinarazitakoan, Finantza Zuzendaritzak espedientearen izapidea bere gain hartuko du, legez eta erregelamenduz eskubide publikoko diru-sarreretarako aurreikusitako arauei atxikita.

Itzultze-prozedura arau-hauste administratiboa sor lezaketen gertaeren ondorioz hasiko balitz, organo eskuduna jakinaren gainean jarriko litzateke, zehapen-prozedurari hasiera emateko.

Itzultze-prozedura ebazteko eta jakinarazteko gehienezko epea hamabi hilabetekoa izango da espedientea hasteko akordioaren datatik hasita.

Epe hori ebazpen espresik gabe igarotakoan, prozeduraren iraungitzea sortuko da, jarduerak amaiera arte jarraitzeari kalterik egin gabe eta preskripzioa epe horren amaiera arte etentzat jo gabe.

## X. TITULUA

## ADMINISTRAZIO ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK DIRU LAGUNTZEN ARLOAN

*37. artikulua. Arau-haustearen kontzeptua.*

Diru laguntzen gaietan arau-hauste administratiboak dira Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 56., 57. eta 58. artikuluetan tipifikatutako egintzak; eta ez-egiteak, eta zabarkeria hutsa izanda ere zehagarriak izango dira. Diru laguntzen baldintzak ez betetzeak kasu bakoitzean dagozkion erantzukizunak sortuko ditu, esparru hauetan:

* Administrazio-erantzukizuna: Emakidako administrazio-egintzaren barruko forma eta prozedura aldeko baldintzak ez betetzeagatik eskatuko da. Erantzukizun hori Udalak berak irekitako zehapen-espedientearen bidez eskatuko da.

1. Las cantidades a reintegrar tendrán la consideración de ingresos de derecho público, siendo de aplicación para su cobro lo previsto en la Ley General Presupuestaria.

2. El interés de demora aplicable en materia de subvenciones incrementado en un 25 por ciento, salvo que la Ley de Presupuestos Generales de Navarra establezca otro por el Estado.

3. En el acuerdo de devolución deberán constar los argumentos de no fijación de intereses.

*Artículo 36. Procedimiento de reintegro.*

El órgano que concedió la subvención será competente para adoptar la resolución de exigir el reintegro, total o parcial del importe percibido. El derecho de la administración a reconocer o liquidar el reintegro prescribe a los cuatro años.

El procedimiento de reintegro de las subvenciones se iniciará de oficio, a instancia del órgano que concedió la subvención, de una orden superior, por petición razonada de otro órgano, o a instancia de un órgano que tenga competencia para efectuar el control financiero de dicha materia, por denuncia o por comunicación realizada por el propio particular.

En la tramitación del procedimiento se garantizará, en todo caso, el derecho a la audiencia de la persona interesada.

Verificada la indebida aplicación total o parcial de la subvención concedida, el órgano competente dictará resolución que deberá ser motivada, incluyendo expresamente la causa o causas que originan la obligación de reintegro, así como la cuantificación del importe que debe devolverse y la forma y plazo para reintegrarlo, advirtiendo de que, en el caso de no efectuar el reintegro en el plazo previsto, se procederá por vía de apremio.

Una vez notificada la resolución de reintegro descrita en el apartado precedente, la Dirección Financiera asumirá la tramitación del expediente, sujetándose a las reglas legal y reglamentariamente previstas para los ingresos de derecho público.

Si el procedimiento de reintegro se hubiera iniciado como consecuencia de hechos que pudieran ser constitutivos de infracción administrativa, se pondrán en conocimiento del órgano competente para la iniciación del procedimiento sancionador correspondiente.

El plazo máximo para resolver y notificar la resolución del procedimiento de reintegro será de doce meses desde la fecha del acuerdo de iniciación.

Transcurrido dicho plazo sin resolución expresa se producirá la caducidad del procedimiento sin perjuicio de continuar las actuaciones hasta su terminación y sin que se considere interrumpida la prescripción por las actuaciones realizadas hasta la finalización del citado plazo.

## TÍTULO X

## DE LAS INFRACCIONES ADMINISTRATIVAS Y SANCIONES EN MATERIA DE SUBVENCIONES

*Artículo 37. Concepto de infracción.*

Constituyen infracciones administrativas en materia de subvenciones las acciones y omisiones tipificadas en los artículos 56, 57 y 58 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones y serán sancionables incluso a título de simple negligencia. El incumplimiento de las condiciones de las subvenciones originará las responsabilidades que en cada caso corresponda, en los siguientes ámbitos:

* Responsabilidad administrativa: Será exigida por el incumplimiento de requisitos formales y procedimentales incluidos en el acto administrativo de concesión. Su exigencia se realizará mediante expediente sancionador incoado por el propio Ayuntamiento.

EK\CV GAO-I-2022-05727

* Kontabilitate-erantzukizuna: Bi maila hauetan eskatuko da:

— Kanpo-fiskalizazioa egiteko, Herri Kontuen Euskal Epaitegia da organo eskuduna.

— Kontabilitate-erantzukizuna epaitzeko, Kontuen Auzitegia da organo eskuduna.

* Erantzukizun penala: Auzitegi arruntei dagokie, bereziki diru laguntzak izapidetzean egindako delituei eta dokumentuen faltsutasunari dagokienez.

*38. artikulua. Zehapen-prozedura.*

Zehapenak jartzeko organo eskuduna, une bakoitzean indarrean den araudiaren eta aginpideak eskuordetzearen arabera, eskumen hori esleituta duena da.

Zehapen-prozedura izapidetzeko, administrazio-prozedura eta herri-administrazioen zehapen-ahalmena arautzen dituzten legezko eta erregelamenduzko xedapenei helduko zaie, eta baita diru laguntza publikoak arautzeko araudian aurreikusitakoari ere.

Arau-hausteak lau urteko epean preskribatuko dira, egin diren egunetik kontatzen hasita.

Zehapenak lau urteko epean preskribatuko dira, zehapena ezarri zuen ebazpenak irmotasuna hartzen duen biharamunetik kontatzen hasita.

Ezartzen diren diruzko isunak itzultze-betebeharrekiko independenteak izango dira eta horiek kobratzeko aplikatzekoa izango da eskubide publikoko diru-sarreretarako aurreikusitako araubide juridikoa.

*39. artikulua. Zehapenak.*

Zehapenak Diru laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak (59. artikuluan eta hurrengoetan) eta haren garapenerako erregelamenduak aurreikusitakoaren arabera ezarriko dira.

Kasu zehatz bakoitzean, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 60. artikuluan jasotako inguruabarrak aintzat hartuta mailakatuko dira zehapenak.

*40. artikulua. Aldiberekotasuna prozesu penalarekin.*

Prozedura izapidetzean pertsona onuraduna arau-hauste penala sor lezakeen ekintza edo ez-egite batean dagoela agerian jarriko balitz, Administrazioak jurisdikzio eskuduna jakinaren gainean jarriko luke eta zehapen-prozedura etengo luke, ebazpen judizial irmoa egokitzen den artean.

*41. artikulua. Aldiberekotasuna beste zehapen-espedienteekin.*

Diruz lagundutako jarduera garatzeko behar diren baimenak ez betetzeak dagozkien zehapen-espedienteak sortuko dituzte kasu bakoitzean, eta baimena eman zuen administrazio-unitateak izapidetuko ditu.

Espediente horiei egokitzen zaizkien diruzko isunak jasotzeko zain dauden diru laguntzen kantitateei zordunduta konpentsatu ahal izango dira.

*42. artikulua. Kalteak ondasun publikoetan.*

Diruz lagundutako jardueran zehar ondasun publikoetan kalteak eragingo balira, horiek zehazteko aldebiko espedientea izapidetuko litzateke. Sortutako kalteak birjartzeko edo konpontzeko zenbatekoa jasotzeko zain dagoen diru laguntzari zordunduta konpentsatuko da. Zenbateko hori guztia estaltzera iritsiko ez balitz, geratzen den kantitatea kobratzeko neurri egokiak hartuko lirateke.

* Responsabilidad contable: Se exigirá en los dos órdenes siguientes:

— Por el que realiza la fiscalización externa, el órgano competente es el Tribunal Vasco de Cuentas.

— Por el que se realiza el enjuiciamiento de la responsabilidad contable, el órgano competente es el Tribunal de Cuentas.

* Responsabilidad penal: Corresponde a los tribunales ordinarios, especialmente en lo referente a delitos en la tramitación de subvenciones y falsedad de documentos.

*Artículo 38. Procedimiento sancionador.*

Será competente para la imposición de las sanciones el órgano que, de conformidad con la normativa y la estructura de delegación de atribuciones vigente en cada momento, tenga atribuida tal competencia.

Para la tramitación del procedimiento sancionador se estará a lo dispuesto en las disposiciones legales y reglamentarias reguladoras del procedimiento administrativo y del ejercicio de la potestad sancionadora de las administraciones públicas, así como a lo previsto en la normativa reguladora de las subvenciones públicas.

Las infracciones prescribirán en el plazo de cuatro años a contar desde el día en que se hubieran cometido.

Las sanciones prescribirán en el plazo de cuatro años a contar desde el día siguiente a aquel en que hubiera adquirido firmeza la resolución por la que se impuso la sanción.

Las multas pecuniarias que se impongan serán independientes de la obligación de reintegro y para su cobro resultará de aplicación el régimen jurídico previsto para los ingresos de derecho público.

*Artículo 39. Sanciones.*

Las sanciones serán impuestas de conformidad con lo previsto en los artículos 59 y siguiente de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y su reglamento de desarrollo.

Las sanciones se graduarán atendiendo en cada caso concreto a las circunstancias recogidas en el artículo 60 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre.

*Artículo 40. Concurrencia con proceso penal.*

Si en la tramitación del procedimiento se pusiera de manifiesto que la persona beneficiaria pudiera estar incursa en acción u omisión constitutiva de infracción penal, la Administración lo pondrá en conocimiento de la jurisdicción competente, y acordará la suspensión del procedimiento sancionador hasta tanto no recaiga resolución judicial firme.

*Artículo 41. Concurrencia con otros expedientes sancionadores.*

Los incumplimientos de las autorizaciones precisas para el desarrollo de la actividad subvencionada originarán en su caso los correspondientes expedientes sancionadores que serán tramitados por la unidad administrativa que concedió la autorización.

Las sanciones pecuniarias que recaigan en aquellos expedientes podrán compensarse haciéndose efectivas con cargo a las cantidades de subvención pendientes de percibir.

*Artículo 42. Daños en bienes públicos.*

Si en el desarrollo de la actividad subvencionada se causaran daños en bienes públicos, se tramitará expediente contradictorio para su determinación. El importe de la reposición o reparación de los daños causados se compensará con cargo a la subvención pendiente de percibir. En caso de que no alcanzara a cubrir la totalidad de aquel importe, se adoptarán las medidas oportunas para el cobro de la cantidad restante.

EK\CV GAO-I-2022-05727

*43. artikulua. Arau-hausteen erantzuleak.*

Diru laguntzen arloko arau-hauste administratiboen erantzule izango dira Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, egitez edo ez egitez, tipifikatutako kasuetan dauden pertsonak, eta, bereziki, hauek:

— Diru laguntzen onuradunak, baita diru laguntza ematea oinarritzen duten jarduerak egiteko konpromisoa hartu duten pertsonen edo erakundeen kideak ere, zeinak Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 11. artikuluko 2. idatz zatian eta 3. idatz zatiko bigarren paragrafoan aurreikusten baitira.

— Erakunde laguntzaileak.

— Jarduteko gaitasunik ez duten diru laguntzen onuradun direnen legezko ordezkaria.

— Diru laguntzaren xedearekin edo justifikazioarekin zerikusia duten pertsonak edo erakundeak, laguntza ematera eta eskatzen diren agiriak ematera behartuta daudenak, Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 46. artikuluan xedatutakoa betez.

*44. artikulua. Erantzukizunetik salbuestea.*

Tipifikatutako egite edo ez egiteek ez dute diru laguntzen arloko arau-hauste administratiboaren erantzukizunik ekarriko kasu hauetan:

— Jarduteko gaitasunik ez dutenek egiten dituztenean.

— Ezinbestez gertatzen denean.

— Talde baten erabakiaren ondorio direnean, botoa salbatu dutenentzat edo erabakia hartu zeneko bilerara joan ez zirenentzat.

XI. TITULUA

PUBLIZITATEA

*45. artikulua. Publizitatea.*

Emandako diru laguntzen zerrenda, pertsona onuradunak eta beren zenbatekoak adierazita, Udalaren web orrian eta udaleko iragarki-oholean argitaratuko dira.

Argitalpena ez da beharrezkoa izango diru laguntzek Udalaren aurrekontuan esleipen izenduna dutenean.

Diru laguntzen datuak ez dira argitaratuko, diru laguntzaren xedea argitaratzea pertsona fisikoen errespetuaren eta ohorearen babesaren aurkakoa eta norberaren eta familiaren intimitatearen aurkakoa izan daitekeenean, eta diru laguntza zehatzaren oinarri berezietan horrela jasota dagoenean.

Diru laguntzaren pertsona edo erakunde onuraduna behartuta egongo da jarduera Oiartzungo Udalak diruz lagundua dela hedatzera.

Hedatze-neurriak izango dira erakunde emailearen erakunde-irudia txertatzea, eta baita finantzaketa publikoari buruzko hitzak ere txartel, plaka oroigarri, material inprimatu, euskarri elektroniko edo ikus-entzunezko, edo komunikabideetan egindako aipamenetan.

XII. TITULUA

INTERPRETAZIOA

*46. artikulua. Interpretazioa.*

Alkatetzak Ordenantza hau modu egokian aplikatzeko eta interpretatzeko behar diren agindu eta argibide guztiak emateko ahalmena du.

*Artículo 43. Responsables de las infracciones.*

Serán responsables de las infracciones administrativas en materia de subvenciones las personas que por acción u omisión incurran en los supuestos tipificados como infracciones en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y, en particular, las siguientes:

Las personas beneficiarias de subvenciones, así como los miembros de las personas o entidades contempladas en el apartado 2 y segundo párrafo del apartado 3 del artículo 11 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, en relación con las actividades subvencionadas que se hubieran comprometido a realizar.

— Entidades colaboradoras.

— El o la representante legal de las personas beneficiarias de subvenciones que carezcan de capacidad de obrar.

— Las personas o entidades relacionadas con el objeto de la subvención o su justificación, obligadas a prestar colaboración y facilitar cuanta documentación sea requerida en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 46 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

*Artículo 44. Supuestos de exención de responsabilidad.*

Las acciones u omisiones tipificadas en los siguientes supuestos no darán lugar a responsabilidad por infracción administrativa en materia de subvenciones:

— Cuando se realicen por quienes carezcan de capacidad de obrar.

— Cuando concurra fuerza mayor.

— Cuando deriven de una situación colectiva, para quienes hubieran salvado su voto o no hubieran asistido a la reunión en que se tomó aquella.

TÍTULO XI

PUBLICIDAD

*Artículo 45. Publicidad.*

La relación de subvenciones concedidas, con indicación de las personas beneficiarias y sus cuantías, serán publicadas en la página web del Ayuntamiento y en el tablón de anuncios municipal.

No será necesaria la publicación cuando las subvenciones tengan asignación nominativa en el presupuesto del Ayuntamiento.

No se publicarán los datos de las subvenciones cuando su publicación, en razón del objeto de la subvención, pueda ser contraria al respeto y salvaguarda del honor, la intimidad personal y familiar de las personas físicas y así se recoja en las bases específicas de la concreta subvención.

La persona o entidad beneficiaria de la subvención estará obligada a difundir que la actividad ha sido subvencionada por el Ayuntamiento de Oiartzun.

Las medidas de difusión consistirán en la inclusión de la imagen institucional de la entidad concedente, así como leyendas relativas a la financiación pública en carteles, placas conmemorativas, materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales, y en menciones realizadas en medios de comunicación.

TÍTULO XII

INTERPRETACIÓN

*Artículo 46. Interpretación.*

La Alcaldía queda facultada para dictar cuantas órdenes e instrucciones resulten necesarias para la adecuada interpretación y aplicación de la presente ordenanza.

EK\CV GAO-I-2022-05727

XIII TITULUA

ERREKURTSOAK

*47. artikulua. Errekurtsoak.*

Ordenantza honen aurka zuzenean aurka egin ahal izango zaio bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean.

Epea Ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko da kontatzen.

*Xedapen indargabetzailea.*

Ordenantza honetan xedatutakoarekin kontraesanean edo aurka dauden udaleko arau eta xedapen guztiak indargabetuta geratzen dira.

*Xedapen iragankorra.*

Ordenantza hau indarrean sar tzen denerako hasiak diren diru laguntzen prozedurei une hartan indarrean zegoen araudia aplikatuko zaie. Ondorio hauetarako, prozedura hasteko unea joko da: norgehiagoka eran ematen direnentzako, deialdia argitaratzen denetik; eta emakida zuzenekoentzako, emakidaren erabakia hartu denetik edo hitzarmena izenpetu denetik.

*Azken xedapena.*

Ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratzen denetik hurrengo egunean jarriko da indarrean.

TÍTULO XIII

RECURSOS

*Artículo 47. Recursos.*

La presente ordenanza podrá impugnarse directamente en el plazo de dos meses ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

El plazo comenzará a contarse a partir del día siguiente a la publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de la presente ordenanza.

*Disposición derogatoria.*

Quedan derogadas todas las normas y disposiciones municipales en lo que contradigan o se opongan a lo dispuesto en la presente ordenanza.

*Disposición transitoria.*

A los procedimientos de concesión de subvenciones iniciados antes de entrar en vigor esta ordenanza les será de aplicación la normativa vigente en el momento de su inicio. A estos efectos el procedimiento se considera iniciado desde el momento de la aprobación de la convocatoria para las subvenciones de concurrencia competitiva, y desde el momento en que se adopte la resolución de concesión o se suscriba el convenio para las de concesión directa.

*Disposición final.*

El presente reglamento entrará en vigor al día siguiente de su publicación íntegra en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

EK\CV GAO-I-2022-05727